

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

484

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 27koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, nekazarien- eta baso-ekoizleen elkarteei 2022ko urriaren 26ko Aginduaren bidez deitutako laguntzak ukatu eta ematen dituena.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2022ko urriaren 26ko aginduaren babesean, ebazpen honen I. eta II. eranskinetan zerrendatutako laguntza-eskabideak aurkeztu ziren. Agindu horren bidez, nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteetarako laguntzen 2022ko ekitaldiko deialdiaren oinarriak onetsi ziren. Laguntza horiek 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan daude aurreikusita, zeina 2022ra arte luzatu baitzen, 2020/2220 (EB) Erregelamenduaren bidez.

2022ko abenduaren 16an, Balorazio Batzordeak ebazpen-proposamena eman zuen, 2022ko urriaren 26ko aginduaren zazpigarren ebazpen-zatiko 4. puntua aplikatuz, kontuan hartuta agindu horretan ezarritako betekizunak, baldintzak eta balorazio-irizpideak.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hauxe,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen II. eranskinean zerrendatutako onuradunei 400.000,00 euro ematea 2022ko urriaren 26ko aginduaren bidez deitutako nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteetarako laguntzetarako.

Bigarrena.– Fakturazioari buruzko dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da laguntza, 2022ko urriaren 26ko aginduaren zortzigarren ebazpen-zatian aurreikusitakoaren arabera.

Hirugarrena.– Onuradunak 2022ko urriaren 26ko Aginduan zehaztutako edozer betekizun betetzen ez badu edo Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan xedatutako itzulketa-kausaren batean badago, dirulaguntzarako eskubidea galduko du eta, hala badagokio, laguntzak itzuli beharko ditu, bai eta legezko interesak ere.

Laugarrena.– Ebazpen honen I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei ukatzea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2022ko urriaren 26ko aginduaren bidez deitutako nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteetarako laguntzak.

Bosgarrena.– Administrazio bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioke interesdunak Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburordeari, hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 27a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2023ko urtarrilaren 30a, astelehena

I. ERANSKINA

EKOIZLEEN ERAKUNDEEI LAGUNTZAK – 2022KO EKITALDIA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

	Zk.	Aurkezpen-data	IFK	Izena	Ukatzeko arrazoia
1	00001-PAF2022-AC	11-11-2022	F01035278	Garlan, S. Coop.	Aurrekontuan dirurik ez.

2023ko urtarrilaren 30a, astelehena

II. ERANSKINA

EKOIZLEEN ERAKUNDEEI LAGUNTZAK – 2022 EKITALDIA

ONARTUTAKO DIRULAGUNTZAK

	zk.	Aurkezpen-data	IFK	Izena	EAEko aurrekontuen laguntza	FEADER Funtzen Laguntza	Guztira
1	00002-PAF2022-AC	22-11-2.022	F75194654	Uneko, Koop. Elk.	20.000,00	80.000,00	100.000,00
2	00003-PAF2022-AC	25-11-2.022	F95854204	Beigorri, S. Coop.	20.000,00	80.000,00	100.000,00
3	00004-PAF2022-AC	29-11-2.022	F01580174	Euskalovo Km0, S.Coop.	20.000,00	80.000,00	100.000,00
4	00005-PAF2022-AC	29-11-2.022	F20849675	Euskaber, Koop.S.	20.000,00	80.000,00	100.000,00
Totales					80.000,00	320.000,00	400.000,00